



Defendatzaileen

— Buletina —

Boletín Defensoras

Urria - Octubre 2022

Aurkibidea



01

Aurkezpena

02

Andrea Rosalesi
elkarrizketa, Somos
Muchas kolektiboko
kidea

03

2022ko urriko
Defendatzaileen Na-
zioarteko Topaketak

04

Angie Rossen artiku-
lua: Defendatzaileen
Bira 2022. Ezagutzak
ehuntzen

05

Deskolonizazioa eta
ezagutzak: Sara
Alvarezi elkarrizketa

06

Hurrengo
jarduerak

07

Olerkia

Aurkezpena

Irakurle maitea,

Lumaltik Herriak-etik bultzatzen ari garen #OihartzunTalka kanpainaren azken buletin aurkezten dizugu. Beti bezala, ilusio handiz eta sistema kapitalista, arrazista eta heteropatriarkalaren aurkako borrokak kolektibizatzeko asmoarekin, Erdialdeko Amerikako eta Euskal Herriko lurraldeak hurbilduz. Horretarako, elkarrizketarako, elkartrukerako eta sentsibilizatorako guneak sortzea funtsezkoa dela uste dugu. Espazio horietan, gure gorputz-lurra defendatzen duten eta Erdialdeko Amerikako hainbat lurraldetatik datozen emakumeek beren borrokak eta esperientziak partekatzen dituzte, Euskal Herriaren eta bere prozesuen arteko elkartasuna sustatuz, herrien eta emakumeen autonomia defendatzearen alde.

Lehen buletinak ikusi ez badituzu, gogoraraten dizugu #OihartzunTalka 2021eko udaberrian kaleratu zela, Erdialdeko Amerikako emakumeek bultzatutako bizitzaren eta lurraldearen defentsa-prozesuetan jasandako egoeren aurrean ahotza altxatzeko helburu tinkoarekin. Komunitatearen defendatzaile izateak dakarren egoerak salatu nahi ditugu, haiek burututako ekintzak sistema kapitalista estruktibista eta patriarkalaren aurka duten eragina gurera ekarriz. Sistema honek maila globalean inposatzen da eta sistematikoki bortxatzen gaitu uneoro. Hauda, salaketa-kanpaina bat sustatu dugu, gogoe-

ta egiteko eta zaintza eta autodefentsa-ekintzak bideratzeko.

Buletin honen komunikazioa izango da gai nagusia, hau gizartea eraldatzeko tresna gisa uler-tuta, alegia. Komunikazioa, jakintzak kolektiboki sortzeko prozesu parte-hartzaile gisa hartuta, bizi dugun errealitateaz jabetzen laguntzen gaitu, eta errealitate hori pentsatzeko, partekatze-ko eta eraldatzeko aukera ematen digu. Botere hegemonikoen zerbitzura dauden komunikabide nagusiek ezkutatutako errealitateak ikusarazten dituen hori da benetako komunikazio eraldatzaile; subjektuen hitzak, jakintzak, oroimena eta ametsak zabaltzen dituena; sareak, kolektibitateak eta solidaritateak ehuntzeko aukera ematen duena; eta eragin politikorako batzen eta mobilizatzen duena.

Buletin honetan, Erdialdeko Amerikako komunikatzaileei egindako elkarrizketak aurkezten ditugu. Emakume horiek, kolektibo bidez, emakumeak komunikazioaren bidez emantzipatzearen alde borrokatzen dute, eta haiekin elkartzeko hainbat espazio partekatu ditugu 2022ko urriko Defendatzaileen Biran. Topaketa horiek utzi dizkiguten ikaskuntzetako batzuk ere irakurri ahal izango dituzu, gure komunikazio proposamen eraldatzailearen parte direnak. Izan ere, espazio seguruak partekatzea, emakumeek euren burua hobeto ezagutzeko eta beste batzuekin harremanak sortu ahal izateko, subjektu politikoak eraikitze prozesuaren eta jakintza eta proposamen askatzaileak sortzeko estrategiaren ezinbesteko atala da. Horrekin batera, deskolonizazio prozesuetan sendabideak duen garrantziaz hausnartzen dugu, gure ustez deskolonizazio prozesuak gorputzetatik eta lurraldeetatik hizkuntzetaraino hedatzen baitira, eta prozesu horietan dugun konpromisoa geure egiten dugu. Hezkuntza@lumaltik.org helbidean edota gure sare sozialen bidez gurekin harremanetan jartzeko aukera dago.

Ongi etorri!





Andrea Rosalesi elkarrizketa, Somos Muchas kolektiboko kidea

Andrea Rosales hondurastarra da eta abortua legeztatzearen eta sozialki despenalizatzearen alde borrokatzen duen Somos Muchas plataformaren komunikazio taldeko kidea da. 2022ko urrian Euskal Herrian izan zen Lumaltik Herriak taldeak sustatutako Defendatzaileen Biran. Ondorengo elkarrizketa topaketa horien emaitza da.

Zertan datza Somos Muchas kolektiboaren lana? Zer-nolako laguntza eskaintzen diozue mugimenduari?

Somos Muchas plataforma erabakitzeko eskubidearen aldeko apustua egiten dioten erakundeek, kolektiboek, sareek eta feminista independenteek osatzen dute. Horrek adierazi nahi du abortuaren despenalizazio sozial eta legalaren alde lan egiten dugula, gutxienez hiru kausengatik. Urteetan zehar, amatasunak eta erabakitzeko eskubideak bere baitan hartzen duen guztiaren aldeko apustu feminista bilakatu da. Ugalketa eta sexu eskubideetatik hasita, gure bizitzan zehar presente dauden beste askotara ere, emakume gisa eta baita hazteko gaitasuna duten beste pertsona batzuk ere, hala nola, trans gizonak, pertsona ez-binarioak eta jaiotzean emakume gisa izendatua izan den beste edozein pertsona.

Gaur egun, gure lana lau taldek osatzen dute. Lehenik eta behin, narratiba eredu berriak ditugu, eta horrela hurbiltzen dira lankideak lurraldeetara, erabakitzeko eskubidea bertan nola bizi duten jakiteko, hiri nagusietatik harago. Hondurasen, orokorrean, erabakitzeko eskubidearen gaia oso zentralizatuta egon



Argazkiak Marina Gallardo

da hiriburuetan, Tegucigalpan edo San Pedro Sulan esaterako. Orduan, landa-eremuko emakumeek prozesua nola antzematen duten ulertzearen aldeko apustua egin da, beren antzinako ikuspegietatik, herri indigenekin lan egiten dugulako, emakume garifunekin... Hau da, borroka honetan hain presente ez dauden gizarte talde horiek, baina Honduraseko gizarte mugimenduaren ezinbesteko parte direnak eta erabakitzeko eskubidearen aldeko jarrera politikoa dutenak.

Plataforma, berez, 2016. urtean sortu zen, eraldaketa politikoaren aldeko apustu sendoarekin. Gaur egun, Justizia Gorte Gorenaren hautaketa berriarekin ari gara lanean batez ere. Izan ere, iaz, abortua konstituzionalki penatu zenean, Somos Muchas elkartetik errekurso bat bideratu genuen, errekurso horrek Konstituzio Arloko Salaren barruan jarraitzen du oraindik ere. “Una Corte justa para las mujeres” kanpainaren bidez apustu tinkoa egiten ari gara, gorte honek edo datozen 7 urteetarako datorrenak horren inguruko iritzia eman dezan. Herrialdearentzat premiazkoa den gai bat bertan behera hainbeste denbora uztea ez da zilegi.

Komunikazio taldea ere badugu, eta hor ari naiz ni lanean. Gure apustu nagusia erabakitzeko eskubidearen inguruan narratiba berri horiek sortu ahal izatea da, eskura ditugun sare sozial guztiak erabiliz. Irrati komunitario eta hedabide tradizionalen aldeko apustu handia egiten dugu ere, badakigulako emakume guztiek ez dutela Interneterako sarbiderik, emakume asko ez dira gure jarraitzaileak oraindik edota ez dira gure argitalpenekin elkarreragiten duten publikoa.

Eta, azkenik, barne indartze taldea dugu, funtsezko oinarria dena, ezin baitugu kanpora begira soilik lan egin gu geu nola gauden kontuan hartu gabe, erakundeak edota lanean ari diren feminista independenteak, alegia.

Nola heldu zara Somos Muchas kolektiboaren borroka prozesura?

2021. urtean iritsi nintzen Somos Muchas kolektibora, blindaje konstituzionala gertatu ondoren. Herrialdeko eskuindar talde askoren gorrotoa ze mailaraino iristen den onartzea oso gogorra izan zen, botere handiegia baitute oraindik ere. Hala eta guztiz ere, lan-kideek, beren borroka, indar eta enpatia eta samurtasunaren bidez, aukera eskaini zigten beste kide batzuei parte hartzeko eta,

samurtasunaren bidez, aukera eskaini zigten beste kide batzuei parte hartzeko eta, horrela, elkarri eusteko ez ezik, suspertzeko eta borroka duin honekin jarraitzeko indarra emateko ere.

Nola eraldatu daiteke mundua komunikazioaren bidez?

Komunikazioa zubi bat da gaur egun bizi dugun eta eraikitzen ari garen beste mundu batzuen artean. Askotan, komunikabideetan ikusten dugun bertsio horrekin geratzen gara, pribilegiatu batzuei bakarrik mesede egiten dien narratiba neoliberalak kaleratzen dutenak. Hala ere, nik Somos Muchas elkartetik egindako komunikazioetan oinarrituta, eta sare eta talde desberdinek herrialdean egiten dutenaz ikasita, komunikazioak zubiak eraikitzei aukera paregabea eskaintzen duela ohartu naiz. Ez bakarrik guk nahi duguna ezagutzea, baita komunean duguna ere. Izan ere, askotan, polarizazioak gauza asko kontra ditugula sinestarazten digu, baina benetan posible da elkarrizketa horiek izatea erabat banatzen gaituen hori kontuan izan gabe. Eta guztiz beharrezkoa da elkarrizketa horiek izatea, dena beti bai ala ez izango dela sinisteari utzi behar diogu, gure artean hitz egin behar dugu, eta komunikazioak espazio hori izateko aukera ematen digu.

“Komunikazioari esker, ezagutzen genuenetik haratago bititza ere dagoela antzeman dezakegu, eta horrek aukera ematen digu, ez bakarrik indibidualki hazteko, baizik eta kolektiboki hazteko ere”.

Zer da zuretzat Komunikazio Eraldatzailearen kontzeptu hori?

Komunikazio eraldatzaileak beste mundu horiek sortzen hasteko aukera ematen digu. Askotan aipatu izan dugu zer izan daitekeen posible etorkizuneko gertakari bat balitz bezala, eta ez egunero egiten dugun lanarekin eraikitzen ari garen zerbait bezala.

Komunikazio eraldatzailea da aliantzak ehuntzeko eta, horrekin batera, narratiba berriak sustatzeko aukera eskaintzen diguna. Emakumeek eta gainontzeko pertsonak jakin dezaten ez dela beti hain heteronormatua, patriarkala, matxista, mugatua izan behar, sinetsarazten baitizu mundu honetan zure zeregina hori dela eta mugatzen zaituena, eta ezin duzula haratago ikusi.

Zer suposatu du zuretzat Lumaltik Herriak sustatutako elkartruckerako espazio hauek? Zer-nolako garrantzia du lurralde askotariko emakumeen arteko sareak ehuntzeak?

Topaketa hau oso baliotsua izan da, dudarik gabe. Izan ere, lankide guztiek zekarten esperientzia, eta nik ez nuen maila indibidualean

hauteman, baina haiek entzutea, haien borroka ezagutzea, apustuak, jarrerak eta zailtasunak zeintzuk diren jakitea, haiengandik askoz hurbilago sentiarazi nau. Izan ere, bizitza bera ez dugun arren eta leku berberen parte ez izan, gauza askok lotzen gaituzte, eta ederra da beren espazio eta komunitateetatik borrokatzen duten beste lankide batzuekin sareak ehuntzea. Bakarrik ez gaudela ohartzen gara, asko garela eta egunero aukera berri bat dagoela pertsona gehiagorekin elkartu ahal izateko, lehen aipatzen nituen zubi horiek eraikitzeko. Horrekin batera, dena oso izugarria sentitzen dela eta testuingurua oso astuna izan daitekeen arren, lagunak dituzula konurtatzeko ere balio izan du, zain daudenak, zure herrialdeko egoeraren berri dutenak eta ekarpenak egin ditzaketanak, edo egoera horietatik pasatu direnak eta funtzionatu duena eta ez duena partekatu ahal dizutenak. Informazio-truke eta partekatze kultural horiek egin ahal izatea oso baliotsua da, eta ez bakarrik maila indibidualean edo mugimendu gisa hazteko, baizik eta zure lurraldera soilik mugatzen den zerbait ez dela konurtatzeko. Eskualde mailako zerbait da, mundu mailakoa, eta batzen gaituen zerbait da.



An illustration of a person's lower body wearing pink and purple underwear. A plant with green and dark blue leaves and small white flowers is growing from the waist area. The background is yellow.

Aliantzak
Erresistentziak
Ekimenak

2022ko urriko Defendatzaileen Nazioarteko Topaketak

Urriaren 7tik 14ra bitartean, hainbat gune eta lurraldeetatik etorritako emakumeen arteko topaketak burutu ziren, pertsonen eta lurraldeen eskubideak defendatzeko helburuarekin. Lumaltik Herriak-ek antolatutako #Defendatzaileen Biraren barruan, Ruda kolektiboko Angie Ross (Guatemala) eta Somos Muchas taldeko Andrea Rosales (Honduras), gizartea eraldatzeko komunikazioarekin lan egiten duten kolektiboetako lankideak direnak, Euskal Herriko hainbat lekutan izan ziren, beren esperientziak eta borrokak beste lankide batzuekin partekatzeko. Kolekti-

boen arteko elkartruke espazio horietan Mujeres del Mundo, Marimatraka, Azpeitiko Emakumeen Txokoa eta Debako mugimendu feministak parte hartu zuten. Gainera, erretiro bat antolatu zen Basoan (Artea), emakumeen artean ikasteko, autozaintetarako eta zaintza kolektiborako espazioak sortuz.

En las siguientes páginas encontraréis algunas de las reflexiones que tuvieron las mujeres tras el retiro de Basoa y algunas fotos de los diferentes espacios de encuentro.

Argazkiak Marina Gallardo

“Espazio honek maitasuna suposatu du niretzat, eskerrik asko emakumeen sareei, bidea ireki ziguten arbasoei eta ereiten ari garen haziei”, Sara Álvarez, terapeuta social Maya K’iche de Guatemala



Ilustrazioak Bea Aparicio



“Niretzat topaleku bat izan da, sendatzeko, laguntzeko eta asko ikasteko gunea”, Michelle Carbajal, del movimiento Yo no quiero ser violada (Honduras)

“Emakumeok istorioak kontatu ditugun espazioa izan da hau, istorio horiei buruz hausnartu genuen, baina baita elkar lagundu eta sendatu ere. Maitasun, samurtasun, irri eta laztan handiko topaketa”, Angie Ross, de RUDA (Guatemala)







**“Emakumeen espazioak sendagarriak dira.
Gu zaintzeko energia sortzen ari gara.
Elkar laguntzeko sareak sortzen ditugu”.**





Angie Rossen artikulua: Defendatzai- leen Bira 2022. Ezagutzak ehuntzen



Angie Ross Basoan
Argazkiak Marina Gallardo

Lumaltik Herriak taldeak bira bat egin zuen 2022ko urrian Erdialdeko Amerikako defendatzaileekin, eta bertan Abya Yalako lurralde bakoitzeko jakintzak, istorioak eta borrokak partekatu ziren.

Defendatzaileekin biran izatera gonbidatu ninduten, baita gai batzuetan parte hartzera ere. Niretzat, esperientzia oso aberasgarria izan zen jarduera guztietan izateko aukera izatea; horregatik, hurrengo hitzetan, atenzioa eman zidaten jarduera guztiak kontatuko ditut.

Urriaren 8an eta 9an, larunbata eta igandea, Erdialdeko Amerikako eta Euskal Herriko hainbat lurraldetako emakumeen topaketa egin zen. Basoa izeneko espazioan hasi ginen, Arteako

Defendatzaileen Etxean, defendatzaileen eta aktibisten arteko topagune gisa balio duen etxe komunitarioa, alegia. Olatzen hitzetan, “atsedena, atzeguardia, aterpea eta ahotsa eskaintzen dituen espazio solidarioa da”.

Zeremonia batekin hasiera eman zitzaion, parte-hartzaile bakoitzak bere burua ezagutu eta bizi duen egoerarekin bat egin zezan. Sara Álvarez ezagutu nuen, maia k'iche emakume guatemalarra eta autozaintzaren garrantzia aldarrikatzen duen terapeuta soziala. Hori dela eta, zainketarako aholku batzuk lankideekin partekatzera gonbidatu gintuen, eta nola jar ditzakegu praktikan gure eguneroko bizitzan.

Era berean, Sarak dinamika batzuk burutu zituen eta, horien bidez, emakume guztiei aholkatzen zien plazerra berriro nola senti zezaketen, kulparik gabe gorputzak eta sexualitatea ezagutuz.



Amaitzean, bakoitzari poltsatxo bat eman zitzaion. Poltsatxo horrek hainbat tresna zituen, hala nola kandelak, bainu-xaboia, olio usaintsu bat, libreta bat eta arkatza. Kit honek gure zainketetarako espazio bat izaten laguntzen du, eta egun nekagarri baten ondoren mima-tua sentitzeko, zaindu behar dugun lehen lurraldea gure gorputza bera dela aitortuz.

Igandean, hilak 9, "Tximeleta" izeneko jokoarekin eman genion hasiera egunari. Bertan, lagunak hiruko taldeetan elkartu ziren, eskuineko hegialak, ezkerreko hegialak eta erdikoak krisalidaren papera hartuz. Orduan, pertsona batek aurrekoa aipatzen zuen bakoitzean posizioak aldatu behar zituzten haien artean.

Horrela ezagutu nuen Coni Carranza Castro, Warmipura erakundeko kidea, eta Euskal Herrira etorri ziren emakumeekin hitz egiten has-teko eta egokitze dinamika hori planteatu zuen.

Hori dela eta, tximeletari eta metamorfosiari buruzko taldeak ezarri zituen. Lehenengo

taldeari arrautza deitzen zitzaion, eta beste herrialde batera migratzearen zergatia eta hartutako erabakia azaltzen zen. Hurrengo taldea beldarra zen. Kasu honetan, migratu zen herrialde horretan egoteko unean zeuden prozesu emozionalei eta sozialei buruz hitz egiten zen. Krisalidan migratzeko eta sendatzeko perspektiba dago, eta, azkenik, tximeleta dugu. Azken etapa honetan, sendatuak izan dira emakumeak eta beste emakume batzuei prozesuan laguntzeko ahalmena izango dute, osaketa-kolektibo bat burutuz.

Topaketa feministaren baitan migrazio-prozesu emozionalei eta prozesu politiko-sozialei buruz ere hausnartu zen, baita xenofobia, arrazakeria, klasismoa eta migratzeko unean pertsona askok jasotzen duten tratua bezalako problematikak nola aurki daitezkeen ere. Horrekin batera, migratzea pertsona orok izan behar duen eskubidea dela onartzearen eta ikusaraztearen garrantzia aldarrikatu zen.



Defendatzaileen eta Azpeitiko mugimendu feministaren arteko topaketa, 2022ko urria



Mujeres del Mundo eta Defendatzaileen arteko topaketa Bilbon, 2022ko urria

Mujeres del Mundo kolektiboarekin topaketa

Astelehenean, hilak 10, bilera bat egin zen Mujeres del Mundo erakundearekin. Bilera horretan, arazo eta erakundeek eta medio digitalek beren erakundeetatik lan egiten duten moduari buruzko mahai-inguru bat antolatu zen.

Partaideek euren erakundeekin egiten dutenaz eta jorratzen dituzten gaien inguruan aritu ziren, hala nola, aktibismoa, kultura edota hainbat kontinenteetatik jasotako feminismo internazionalista, arrazismoaren aurkako jarrera, feminismoa eta Euskal Herrian migratzeko eskubidea.

Espazio horretan, Andrea Rosalesek, Hondurasko Somos Muchas plataformako komunikatzailea, hitza hartu zuen. Bere hitzetan, Hondurasen abortua zigortuta dago, sexu-indarkeriagatik izan bada edota emakumearen edo neskatoaren osasuna arriskuan jartzen

duen kontuan hartu gabe. Horregatik, plataforma gisa, emakume eta neska guztien sexu eta ugalketa eskubideen alde borrokatzen dute, eta nazioko zein nazioarteko mugimenduak sustatzen dituzte, babes integrala lortzen laguntzeko eta bakoitzari bizitza duina bermatuko dioten eraldaketak lortzeko.

RUDA hedabide digitaleko kazetari gisa parte hartzeko aukera izan nuen, biztanleriaren eskubideen alde lan egin duten emakume defendatzaileen eta aktibisten aurkako kriminalizazioa eta jazarpenaren inguruko gai planteatuz. Horrekin batera, Guatemalako estatuan, nahiz eta estatu laikoa izan, sexu eta ugalketa eskubideei buruz hitz egiteko aukera ezaren inguruan eztabaidatzeko aukera izan genuen. Horregatik emakumeek sortutako espazio hau sortu da Abya Yala lurraldean, erresilientziatik abiatuta ikuspegi feminista duen ikerketa eta komunikazio kazetaritza helburu duena, istorioak narratiba berriekin kontatzeko gai dena, bir-biktimizazioa erabili gabe.

“Feminismoak. Gorputzak. Lurraldeak.”

Asteartean, hilak 11, “Feminismoak. Gorputzak. Lurraldeak” Nazioarteko Jardunaldia burutu zen, eta bertan Guatemalako bi emakumek parte hartu genuen. Feminismoaren inguruko nire esperientzia; Komunikazioa eta Feminismo komunitarioak, migrazioa, arrazakeriaren kontrako mugimenduak eta afektu-sareak jorratu ziren (Sara Alvarez). Espazio honetan, bai Sarak, bai nik, Abya Yalako lurraldean oroimen historikoa gogoratzearen garrantzia azpimarratu genuen, bai eta gure barrenetik sendatu ahal izateaz ere, nortasun eta sendatze indibidual zein kolektibo bat edukita.

Lurralde izeneko blokean, tokiko lurraldearen ustiapen basatiaren kontra trantsizio ekosozialaz (Bea Plaza) eta estraktibismo transnazionalaren aurkako Erdialdeko Amerikako erresistentziaz (Lilia Prado) hitz egin zen. Bea Plaza soziologoa eta den Lilia Prado aktibistek lurraldearen defentsaren garrantziaz aritu ziren, eta kontsumismoak pertsonengan eta bizi diren tokian duen ondorio latzez. Tokiko lurraldearen ustiapenak ingurumen, gizarte eta politika arazoak eragiten ditu.

Azkenik, Gorputzak atalean, sexu eta ugalketa eskubideak (Andrea Rosales) eta disidentziak (Michelle Carbajal) gaiak landu ziren. Abya Yala lurraldean sexu eta ugalketa eskubideen gaineko problematika bat bizi dugu, eta Estatuak, orokorrean kontserbadoreak diren heinean, emakumeen gorputzen gainean erabakitzen dute, abortuak izategatik kriminalizatuz.

Niretzat, esperientzia handia izan zen lankide bakoitzarekin denbora partekatu ahal izatea eta, batez ere, beren esperientziatik ikastea eta bizi diren lurraldeetan jorratu dituzten gaiak entzuteko aukera izatea.

Dekonolozizazioa: Jai egunak eta Historia

Espainian egiten diren jai egunen inguruko ikerketa txiki bat egin nuen, eta zenbait ondorio eta gogoeta aurkeztu nituen.

Urriaren 12an Hispanitatearen Eguna ospatzen da, Abya Yalako herrientzat odolez tindatutako eguna, hain zuzen ere. Amerikan Kristobal Kolonen lehorreratzea ospatzen da, eta hor hasi zen kontinentearen inbasioa, hurrengo mendeetan zehar Espainiako Inperioa izan zenaren parte garrantzitsu bilakatu zena.

Jai eguna da hau, baita Euskal Herrian ere, eta bertatik Abya Yalaren kolonizazioaz eta genozidioaz hausnartzera gonbidatzen gaituzte. Gure herri indigenentzat, egun horrek gure gizarte-egituran aldaketa izugarria suposatu zuen, eta gaur egun ondorioak ditugure ondusun naturalen ustiapenaren, estraktibismoaren eta enpresa multinazionalen bidez. Gure lurraldeetan eta gure lurraldeetatik kanpo oraindik ere bizi dugun arrazakeria eta diskriminazioa sistema honen emaitza zuzena da.


Hala eta guztiz ere, Abya Yalan “Arrazaren Eguna” edo “Erresistentzia Indigenaren Eguna” bezala ezagutzen da. Hori dela eta, topaketa bat egin zen Azpeitian, eta bertan parte hartu nuen Andrea Rosales eta Michelle Carbajalekin batera. Honduras eta Guatemala herrialdeetako komunitateen erresistentzia eta memoria gogoratzearen garrantziaz hitz egin genuen. Nortasun propioa izatearen balioa, kulturak, hizkuntzak, oroimena erakartzea eta, batez ere, lurraldean bizi diren emakume eta gizon indigenen aurkako indarkeria, diskriminazio eta arrazakeriaren aurka borrokatzen jarraitzea.

Niretzat, biran parte hartzea oso esperientzia atsegina eta aberasgarria izan zen, eta lagunekin une hunkigarriak, istorioak, barreak, besarkadak eta, batez ere, ikaskuntzak partekatu ahal izatea. Komunikazioaren defendatzailea naizen heinean, bultzada handia eskaini dit lan egiten jarraitzeko, beren lurraldeak defendatzen ari diren eta eskubideen alde borrokatzen jarraitzen duten lankide guztien borroka laguntzeko, lurralde desberdinetako emakume guztientzat erresilientziarako bideak irekiz.

Horregatik, emakume migratuen, sexu eta ugalketa eskubideen, emakume defendatzaileen

eta aktibisten aurkako kriminalizazioaren eta jazarpenaren eta beren lurraldeak defendatzen dituzten emakumeen gaineko gaiak ikusarazteko eta borrokatzen jarraitzeko konpromisoa hartu dugu.

Era berean, lagun diren erakundeen borroka partekatzen jarraitzeko konpromisoa dugu, hala nola, Lumaltik Herriak, Ecuador Etxea, Somos Muchas plataforma, RUDA, Mujeres del Mundo erakundea, Warmipura eta kaqla maia emakumeak.



Deskolonizazioa eta ezagutzak: Sara Álvarez elkarrizketa

Sara Álvarez Guatemalako maia k'iche herriko terapeuta soziala da, eta Euskal Herrian izan zen urrian antolatutako Nazioarteko Topaketetan, bere jakintzak eta esperientziak partekatzen eta sendatze kolektiborako tailerrak eskaintzen. Herri indigenen Erresistentzia Eguna zela eta, harekin hitz egin genuen deskolonizazio prozesuetan sendabideak duen garrantziaz.



Argazkiak Marina Gallardo

“Sendabidea bizi-prozesu zoragarria izan da, eta bizitza betea, ongizatean oinarritutakoa eta benetan bizitza merezi dugula sentitzen eta indartzen lagundu digu. Bizimodu horretan oinarritua bizi nahi dugu guk, kasu honetan, gure antzinako kosmobisioa.”

Zergatik da hain garrantzitsua sendabidea?

Sendabidea aurkitzea bizitza hobe baterako sarbidea izan zen niretzat, eta beste emakume batzuekin bide horretan topatzea zoragarria izan da. Sendabidea belaunaldiz-belaunaldi gure lurraldeetan bizi izan dugun mina eta sufrimendua sendatzeko tresna gisa erabiltzen dugu. Genozidioak, indarkeria espiritualak, epistemikoak, arbasoak, biolentzia estrukturalak, arrazakeria... Hau da, kolonizazio prozesu bat. Zu zaren guztia kentzen dizutela adierazi nahi du horrek, zerbitzari ona izateko. Kolonizazioak gure izatearen deshumanizaziora garamatza, eta gorentzat jotzen den norbaiten zerbitzura izateko eraikitzen zaituzte. Eta, alde horretatik, urteetan inposatu nahi izan duten hori guztia barneratzen duzu, eta guk, horri, zapalkuntzaren internalizazioa deitzen diogu. Ez duzu kanpoko norbait behar, baizik eta gizartea, familia... Ez dizute hizkuntza irakasten, niri arropak ere kendu zizkidaten. Ez dugu horrela izendatzen, baina seminazio bat bezala da, gaur egun integraziotzat hartzen

dutena. Hala ere, zu zeu izateari uzten ari zara. Zure mundu ikuskeraren arabera sentitzeari eta pentsatzeari uzten ari zara, zure arbasoena ere dena alegia.

Sendatze-prozesuak nire begirada argitzea suposatu zuen, bihotza zabaltzea barnean nuen guztia goitik behera aldatu ahal izateko, gerrak, arrazakeriak edo genozidioek erakarrirako guzti hori alegia. Eta arbasoen jakituriaren sustraiak berreskuratu ahal izatea, arbasoen espiritualtasuna, arbasoen kosmobisioek zeukaten naturarekiko konexioa, zuk zure egunerokoan erabiltzen ez duzun hura, erabat ezabatuta zenuelako. Espiritualtasunak aukera eskaintzen dizu berriro ere osotasunaren existentziarekin konektatzeko. Antzinako kosmobisioek guztiari eman diogu nortasuna beti: aireari, urari, pertsoneri. Sendaketak aukera ematen dizu zapaltzen eta kontrolatzen zaituen guzti hori baztertzeke, eta emantzipazio prozesu bati ekiteko zuk eutsi nahi duzunarekin, zuk eutsi nahi diozun bizi paradigmarekin alegia. Eta horrek elikatzen eta osotzen zaitu.



Retiro Feminista en Basoa, octubre de 2022

Nola landu dezakegu deskolonizazio prozesua zapalkuntza horren sortzaile diren lurraldeetatik?

Sendatze eta deskolonizazio prozesuak analisi global gisa aztertu behar ditugu. Sistema kapitalista, heteropatriarkal eta kolonizatzaile zapaltzaileak errotuta baitaude eta herrialde guztiek kontsumitu gureak egin ditugu.

Espanian nola gauden aztertuta, bizimoduak modu kolonizatzailean bizitzera gonbidatzen gaituela esan dezakegu, izan ere, ez gara ohartzen hemen dugun ongizatea beste gorputz batzuen zapalkuntzan oinarritzen dela, beste gorputz, kontinente eta lurraldetasun batzuk kentzean alegia. Ez dugu sare ikuspegirik. Kontsumismo mailak, argi mailak, ur mailak eta hemen kontsumitzen den aire mailak zerikusi handia dute munduan gertatzen ari den guztiarekin. Orduan, begirada deskolonizatzailea badugu, mundu osoan gertatzen ari denaren kontzientzia globala izan behar dugu. Zer bizi dut nik nire lurraldean? Nire lurraldean bizi dudana egoera honek, nola eragiten die beste lurralde batzuei eta bertako herritarrei? Kontzientzia hori hartzeak aldaketaren beharra dagoela erakusten dizu.

Baina noski, prozesu mingarria izan daiteke kontzientzia zabaltzen duen jende askorentzat, herrialde horiek beste herrialde batzuetara egin ahal izan dutena berrikusten dugulako. Nik hori argi ikusten dut ulertu nahi duten hemengo pertsonekin dudana harremanean. Gertatzen ari den guztiaz jabetzea eragiten dien mina nabaritzen dut, eta euren buruei galdetzea “nola egin dezaket deskolonizazio prozesu hori? Zer egingo dut nire pribilegioekin?” Honen harira, lankide batek gaur adierazten zuen ez dela berez txarra pribilegioak izatea, baldin eta zuk ikusten badituzu eta kontziente bazara, eta zure inguruko kolektibitateari ongizatea sortzeko erabiltzen badituzu. Eta pribilegio horiek desmuntatzea,

beste pertsona eta beste lurralde batzuen esplotazioan oinarrituak izan ez dezaten.

Aldaketa prozesu bat dago, kontzientzia prozesu bat, horretara eramaten zaituena, eta, niretzat, osasunarekin zerikusia du. Ez da bide bakarra, baina zure beldurrak lantzeko aukera eskaintzen dizu, giza mina nonahi dagoelako eta lurralde guztietan izan direlako gerrak. Halaber, zure lurraldeko egiturazko indarkeriak onartzeak min ematen du. Lanean hasi behar dugu, bizitza komunitarioak eraikitzeko helburuarekin, bizitza kolektiboak, gauden tokian egonda, gizateria horretatik abiatu behar gara bizitzak duinak direla eta bizitzaren sarearekin lotura horretan gaudela aitortu eta aldarrikatzeko.

Nola aldatu ditzakegu gure posizioa biktimizatetik aldaketaren aldeko subjektu bilakatzeke?

Arrazializatutako gorputz batean jaio nintzen ni, erabat hustua izan den lurralde batean, eta horrek zirkunstantzia askoren biktima sentiaraztera eraman gaitu. Izan ere, botere ekonomikorako egiturak daude, egitura geo-politikoak, hori posible egiten dutenak. Hala ere, gure egunerokotasuna aztertzen badugu, horrek ni eta tal-



de asko bestearen biktima gisa bizitzera eraman gaitu. Nire narratiba eraiki dezakela sentitzea, nire kosmobisioa berreskura dezakela sentitzea, eta hori egitea. Nire kosmobisioa bizitzeak, kendu zidaten mundu ikuskera hori berreskuratu eta bizi ahal izateak, ez nau biktimaren posizio batean jartzen jada, narratiba bera eraikitzen duen pertsona edo taldea izateko posizio batean baizik.

Orain, ongizatea eraikitzeko eta emakumeen eta haien herrien autonomiak indartzeko prozesuetan ari gara lanean, eta lan hori egiten ari gara berriro biktima izan nahi ez dugun posiziotik, hau da, subjektu aktibo izan nahi dugu abian jarri nahi dugun prozesu horretan.

Une askotan biktimaren posizioan egotearen narratiba horrek lagun izan gaitu eta horri ohituta egon gara zoritxarrez, baina hori ahalduntzearen guztiz kontrakoa da. Horretaz jabetzea garrantzitsua da, biktimak barneratu egiten dezakelako bestela, beti izango baitzara giza harremanetan eta taldeetan, baina horretaz jabe-

tuta egoteak aldaketa zugan dagoela onartzera eramango zaitu. Aldaketa ekintza kolektiboan, sare harremanean, artikulazioan dago. Eta zure tokia hartzen ere laguntzen zaitu. Hau da, zuk dagokizun alea emango duzu prozesu horretan, ez zara ongizatea sortzeko sarearen arduradun bakarra, baizik eta bakoitzak, pertsona bakoitzak, talde bakoitzak, sare bakoitzak, prozesu bakoitzak paradigma osoa ehuntzen laguntzen du, eta elkarrekin eraikitzen ari gara paradigma berri hori edo mantendu nahi dugun bizi-prozesu berri hori. Eta horrek indartu eta ahaldundu egiten gaitu erabat.

Hori da, hain zuzen, ni lantzen ari naizen prozesuetako bat. Nola egin dezakegu arrazializatutako emakumeak, migranteak kasu honetan, barneratu dugun biktima eredu hori baztertzeko eta posizio hori aldatu ahal izateko? Nola aldatu gaitezke gure gorputzen eta lurraldeen gainean inposatua izan den sistema zapaltzaile horretatik?



Hurrengo jarduerak



Tailer Zikloa 'Feminismo anitzak. Zaintzak, sentipenak eta sexualitatea'

Tailer hauek emakume anitz bezala ditugun sentipenetatik hausnartzeko eremu bat izan nahi dute, gure zaintza emozionala, sexuala eta buruaren zaintza aldarrikatuz. Nozio teoriko eta praktikoetatik abiatuta, zaintza, erlaxazio, meditazio eta sendakuntza estrategiak esploratuko ditugu, gure lurralde-gorputza defendatzeko.

Tailerra "Gorputzak, natura eta feminismo komunitarioa"

 Jueves, 20 de octubre

Jesica Marroquín eta **Isabel Hernández**, Guatemalako emakume indigenak.

Sistema neoliberala zapaltzailea da eta emakumeen bizitzan zuzenean eragiten du. Maia herrien antzinako jakintzak oinarri hartuta, Naturarekin birkonektatzeko beharrari buruz hausnartuko dugu, ingurumenaren defentsa gure eskubideen defentsarekin lotuz.

Tailerra "Bizitze Onerako autozaintzak"

 Viernes, 28 de octubre

Saioa Hernández, Hagitz elkarreko kidea.

Nagusi den ekoizpen-ereduak lan ordaindua kokatzen du erdigunean, gure denbora okupatuz. Feminismoetatik denbora hori aldarrikatzen dugu gure gorputzak eta inguruan ditugunak zaintzeko. Tailer honetan, zaintzen inguruan nola sentitzen garen hausnartuko dugu, eremu indibidualetik eta kolektibotik gure ongizaterako praktikak identifikatuz.

Tailerra "Sentipenak eta sexualitateak"

 Lunes, 7 de noviembre

Nathalie Bejarano Castro, sexologia espezializatutako psikologoa.

Emakumeen sexualitatea tabu bat da, ukatua eta estereotipoz eta aurreiritziz bete. Gure sexualitatea aske gozatzea, sexuidentitate eta orientazio guztientzat, Giza Eskubide kontu bat da. Tailer honek emakumeen desioaren ukapen historikoari buruz hausnartu nahi du, eta horrek gure gorputzetan eta ongizateetan dituen ondorioak aztertu.



CICLO DE TALLERES
FEMINISMOS DIVERSOS
CUIDADOS, SENTIRES Y SEXUALIDADES

TAILER ZIKLOA
FEMINISMO ANITZAK
ZAINTZAK, SENTIPENAK ETA SEXUALITATEAK

URRIAK 20 DE OCTUBRE 18:00 - 20:00
URRIAK 28 DE OCTUBRE 18:00 - 20:00
AZAROAK 7 DE NOVIEMBRE 18:00 - 20:00

ZABIEL KULTUR ETXEKO GANBARA, MUTRIKU
CASA CULTURAL ZABIEL, ULTIMO PISO, MUTRIKU

INFO • IZEN EMATEA / INSCRIPCIONES:
HEZKUNTZA@LUMALTIK.ORG • DEFENSORAS.ORG

Komunikazio feminista eta lurraldearen defentsa

Femgarabatek eta emakume aktibista migratu batek BHIko ikasleekin burututako tailerrak.

Artea eta teknologia berriak lurraldearen defentsarako tresna gisa erabiltzen dituen prozesua. Ikasleek stop motion teknikaren bidez istorio bat kontatzen ikasiko dute. Teknika horrek, ilustrazioak konbinatzen ditu animazio bideo bat sortzeko. Tailerrak amaitzean, ikasleek beren bideo propioa sortu ahal izango dute defendatzaile baten istorioa kontatzeko.



Urriaren 27 eta azaroaren 11 bitartean



Mutriku BHI (Mutriku, Gipuzkoa)

	<u>al.</u>	<u>as.</u>	<u>az.</u>	<u>og.</u>	<u>or.</u>	<u>lr.</u>	<u>ig.</u>
Urriak	24	25	26	27	28	29	30
	31	01	02	03	04	05	06
Azaroak	07	08	09	10	11	12	13
	14	15	16	17	18	19	20
	21	22	23	24	25	26	27
	28	29	30				

1. Saioa - Urriak 27: Defendatzailearen pertsonaiaren sorrera.

2. Saioa - Urriak 28: Storyboard.

3. Saioa - Azaroak 3: Collage a marrazketa.

4, 5, eta 6. Saioak - Azaroak 4, 7 eta 10: Stop motion bideoaren grabazioa eta edizioa.

7. Saioa - Azaroak 11: Bideoaren aurkezpena.

La palabra que sana,
Alejandra Pizarnik
(“El infierno musical”, 1971)

Esperando que un mundo
sea desenterrado por el lenguaje,
alguien canta el lugar
en que se forma el silencio.

Luego comprobará
que no porque se muestre furioso
existe el mar,
ni tampoco el mundo.

Por eso cada palabra dice lo que dice
y además más
y otra cosa.



lumatik
HERRIAK